

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatzen dutena betetzeko, herritar guztiei jakinarazten zaie udalbatzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salari proposatuko diola bake epaile titular eta ordezko karguak betetzeko beharrezkoak diren pertsonak izendatzeko 4 urteko aldirako.

Botere Judizialaren Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

Adin nagusikoa izatea.

Nazionalitate espainiarra izatea.

Legutioko udalerrian erroldatuta egotea.

Ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 389. artikulua eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Izendapenean interesa dutenek Legutioko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera, hogeit hamar egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita.

Legutio, 2025eko otsailaren 20a

Alkatea

NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTÁZAR